

Praktiketako Kasu Bereziarako irizpideak

HEFA Fakultateko Graduetarako onartutako irizpideetatik egokitua
(2020/06/23)

Behin behinean aplikatzeko Batzorde Akademikoaren berrikuspenaren zain

Arau orokor gisa, Practicum enborreko irakasgai bat da eta, beraz, errespetatu beharreko egutegi, ordutegi eta ordu kopuru bat dauka zehaztuta.

Ikasle batek ezin badu Practicum ezarrita dagoen moduan bete, bere egoera “Kasu Berezi” bat izan daiteke:

1. Ikasketak eta lana batera egin behar duten ikasleak.¹
2. Erditzeko, adopzioko edo harrerako kasuetan eta hiru urtetik beherako seme-alaben ardura dituzten ikasleen kasuan.²
3. Mendeko senide baten zaintzaile direla egiaztatzen duten ikasleak.³
4. Goi mailako kirolari, teknikari eta epaile gisa edo errendimendu handiko kirolari gisa egiaztatutako UPV/EHU-ko ikasleak.⁴
5. Beste egoera batzuetan dauden ikasleak:
 - a. Gaixotasunak, istripuak
 - b. Arazo administratiboak
 - c. Aldez aurretik ikusi ezin daitezkeenak

Kasu edo salbuespeneko egoera hauetako batean egongo den ikasleak eskaera formal bat egin behar du bere egoera “Kasu Berezi” bezala kontuan hartzeko. Ez da onartuko ikaslearen eta UPV/EHUko tutorearen edo ikaslearen eta praktiketako ikastetxearen arteko inolako akordiorik, ez bazaio aurretik Batzorde Akademikoari komunikatu eta honen aldeko iritzia jaso.

Egoera hauen aurrean ikasleak egin ditzakeen eskaera motak:

1. Praktikaldiaren egutegia aldatzea
2. Praktikaldiaren ordutegia aldatzea
3. Praktiken zentro aldaketa

¹ UPV/EHUko Ikasleen Arautegiaren 10.artikuluaren arabera:
https://www.ehu.eus/documents/3026289/3106907/UPVEHUko_Ikasleen_Arautegia.pdf

² UPV/EHUko Ikasleen Arautegiaren 8.artikuluaren arabera

³ UPV/EHUko Ikasleen Arautegiaren 9.artikuluaren arabera

⁴ UPV/EHUko Ikasleen Arautegiaren 6.artikuluaren arabera

Prozedura honako hau izango da:

1. Ikasleak kontenplazten diren kasu berezien aukerak eta eskaera motak aztertuko ditu eta bere egoerari egokitzen zaiona identifikatuko du.
2. Ikasleak web orriko Practicum atalean dagoen inprimakia beteko du.
3. Ikasleak eskaera berezia arrazoitzen duten agiriak bilduko ditu.
4. Ikasleak eskaera egingo du praktiketako kronograman jarritako epean, eskaera inprimakia beteta eta agiriez lagunduta.
5. Batzorde Akademikoak eskaera aztertu eta onartzeko edo ez onartzeko erabakia hartuko du.
6. Ebazpena web orriko Practicum atalean argitaratuko da.
7. Batzorde Akademikoaren ebazpena aldekoa bada, praktiketako zentroari komunikatuko zaio eta zentroak egoera edo kasu bereziaren baldintzak onartzen baldin baditu, ikasleari eta unibertsitateko tutoreari eta kanpoko tutoreari komunikatuko zaie.
8. Batzorde Akademikoaren ebazpena kontrakoa bada, ikasleak Practicum arrunta egin beharko du eta ez du inolako eskubiderik izango praktikaldiko baldintza orokorrak ez betetzeko.
9. Egutegi akademikoan aldaketa eragiten duten eta beste irakasgai batzuei eragiten dieten kasu berezietako eskaera guztietan, erantzukizun osoa ikaslearena izango da.